

- **Hartzekodun.** Ordaintzeko dagoen zor bat hartu dugun pertsona fisiko edo juridiko oro.
- **Aktiboa.** Ondarearen baliokidea da. Enpresaren jabetzakoak diren eta diru•balioa duten ondasun eta eskubideen multzoa da. Ondasun materialak izan daitezke (ekipamenduak, higiezinak, makinak eta abar), edo immaterialak (finantza•aktiboak, patenteak, markak eta abar).
- **Amortizazioa.** Bi adiera ditu: mailegu edo zor baten zenbatekoa pixkanaka murriztea edo azkentzea, edo inbertitutako funtsak berreskuratzea edo konpentsatzea.
- **Balantzea.** Data jakin bateko ekonomia• eta ondare•egoera islatzen duen kontabilitate• eta finantza•dokumentua. Hiru zati ditu: aktiboak, pasiboak eta kapitala (edo ondare garbia).
- **Cash flow-a** (kutzako fluxua). Enpresa batek irabaziak sortzeko eta ordainketa guztiei aurre egiteko duen gaitasuna neurtzen duen adierazlea. Eragiketa baten hasierako eta amaierako diru•kantitatearen aldea.
- **Kontabilitate-kapitala.** Enpresaren aktiboen eta pasiboen arteko aldea da.
- **Hazi-kapitala edo speed capitala.** Negozio bat hastean, enpresaren kapitalean partaidetza izatearen truke erabiltzen den hasierako kapitala da. Sarritan familiartekoei edo lagunek (FFF: family, friends and fools) jartzen dute kapital hori. Mota horretako finantzaketa honela lortu ohi da:
- **Kapital Sociala:** Bazkideek erakunde edo enpresa bati ematen dizkioten finantza•baliabideak dira. Dirua izan daiteke, edo balio ekonomikoa duten beste ondasun eta ondare•eskubide batzuk.
- **Ustiapen-kontua:** Negozioak denboraldi batean izan duen bilakaera adierazten duen kontabilitate•dokumentua. Ekitaldiaren azken emaitza da, lortutako diru•sarrerak jasandako gastuekin alderatu ondoren.
- **Emaitza-kontua (galdu-irabaziak).** Diru-sarrerak nondik datozen eta gastuak non sortzen diren adierazten du, eta finkaturiko aldian izandako irabazi edo galera garbia erakusten.
- **Fakturazioa.** Fakturazioa zure enpresak aldi jakin batean egin dituen salmenten guztizkoa da, salmenta horietatik eratorritako kostuak kendu gabe kalkulatu. Kontuz! Fakturazioa ez da mozkin garbiaren sinonimoa —fakturazioko sarrerak ken gastu guztiak—, ezta kutxako fluxuarena edo cash flowarena ere —enpresaren gastuei aurre egiteko eskura duzun dirua—.
- **Ibilgetua:** enpresaren aktiboaren parte den elementu bat da eta honako hauek izan daitezke: finantzarioa (kapitaleko inbertsioak, gordailuak, etab.), materiala (enpresaren jabetzako elementu ukigarriak, lurrak, ekipo•ondasunak, makineria, etab.), edo immateriala (patente edo administrazio•emakida gisako ondasun baten bidez erakusten diren inbertsio iraunkorrrak)
- **BEZa.** Ogasunari ordaindu beharreko zerga bat da. Hiru BEZ-mota daude: super murriztua (% 4), murriztua (% 10) eta orokorra (% 21).
- **Jasandako BEZa.** Produktu edo zerbitzu bat erostean enpresak ordaintzen duen balioa da.
- **Jasanarazitako BEZa.** Produktuak saltzeagatik edo zerbitzuak emateagatik enpresak bezeroei kobratzen dien balioa da.
- **Prezio gordina.** Oinarrizko prezio zergapegarria da. Enpresaburuak zehazten duen prezioa, kostuak estaltzeko eta negozioa jasangarri egiteko behar besteko irabazi•marjina lortzeko, BEZa eta gainerako zergak aplikatu gabe.
- **Prezio garbia.** Produktuaren azken salmenta prezioa da, zergak eta abar barne dituena.
- **Salmenta-prezio gomendatua (SPG).** Produktua saltzeko hornitzaileak txikizkariari gomendatzen dien prezioa da.
- **Publikoarentzako salmenta-prezioa (PSP).** Saltzaileak jartzen duen prezioa da, eta fabrikatzaileak edo hornitzaileak gomendaturikoa baino merkeagoa izan daiteke.
- **Porrota:** pasiboa aktiboa baino askoz handiagoa da etengabe, eta enpresak ezin die bere zorrei aurre egin.
- **Likidezia:** Negozioak efektibo sortzeko duen gaitasuna.
- **Pasiboa.** Enpresak bere aktiboa ordaintzeko erabiltzen dituen zorrak eta obligazioak —egin beharreko ordainketak, epe luze-ko zorrak—.
- **Errentagarritasuna:** Negozioak irabaziak lortzeko duen gaitasuna. Kostuak eta mozkinak hartzen ditu kontuan.
- **Erreserbak.** Enpresa baten mozkinaren zati bat, dibidenduak —enpresak sorturiko mozkinetatik bazkideen edo akziodunen artean banatzen den zatia— eta zergak ordaintzera bideratzen ez dena, eta baliabide propio gisa uzten dena, ezustekoetarako eta kaudimen-maila handitzeko.
- **Arriskua:** Enpresaren errentagarritasunerako negatiboa izan daitekeen egoera bat gertatzeko aukera.
- **Soldata gordina.** Dagozkion atxikipenak (PFEZa, adibidez) eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egin aurreko diru guztia da.
- **Soldata garbia.** Deskontu horiek aplikatu ostean kobratzen den dirua da.
- **Leasinga** (finantza-errentamendua). Erosi gabe aktibo bat (autoa, makinak eta abar) erabiltzeko aukera ematen du. Hilero ordaindu beharreko alokairu-kuota bat izan ohi du, eta, denboraldi bat igarotakoan, nahi izanez gero, erosteko aukera erabil daiteke.